

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**8/2019 Mozioa, urtarrilaren 30ekoa, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiari eskatzen baitzaio 2015-2020 Lanbidearteko Esparru Akordioa betetzea eta erremolatxa ekoizten duten ustiategiaren egoera konpontzeko ekintzak abiarazteko**

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko urtarrilaren 30ean egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

8/2019 Mozioa, urtarrilaren 30ekoa, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiari eskatzen baitzaio 2015-2020 Lanbidearteko Esparru Akordioa betetzea eta erremolatxa ekoizten duten ustiategiaren egoera konpontzeko ekintzak abiarazteko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, Eusko Jaurlaritzarekin eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioarekin batera, exijitu dezala bete dadila nekazarien antolakundeek eta AB Azucarera Iberia SLUK sinatutako 2015-2020 Lanbidearteko Esparru Akordioa.

2. Arabako Batzar Nagusiek Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari eskatzen diote ezarri ditzala behar diren bitartekoak 2015-2020 LEA betetzen dela kontrolatzeko; horretarako, zehapen-mekanismoak ezarriko ditu aldebakarreko ez betetzeak gertatzen direnerako, laguntza edo diru-laguntzarik jasotzea izan ez dezaten.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote egin dezala proiektu bat, aztertzen dituen erremolatxaren laborantzaren bideragarritasuna eta izan ditzakeen alternatibak.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote bultzatu dezala estrategia bat sektoreko eta landa-inguruneko eragileekin, zeinean planteatuko diren erremolatxaren sektorearentzako epe ertain eta luzeko alternatibak, hain zuzen ere bultzatzeko laborantzaren dibertsifikazioa sustatzea, lehentasuna emanez errentagarritasun ekonomiko eta sozialari.

5. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote ezen, Arabako Batzar Nagusiaren eta Azti eta Neiker zentro teknologikoekin batera, aztertu ditzatela azukre-erremolatxaren laborantzak izan ditzakeen alternatibak eta erabilera berriak.

6. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote aurkeztu ditzala proposamenak NPBren hurrengo erreformak jaso ditzan merkatuan esku hartzeko mekanismoak eta azukre-erremolatxaren bideragarritasuna eta errentagarritasuna bermatzeko behar besteko babes-markoa.

7. Arabako Batzar Nagusiek mozio hau helaraziko diete Arabako erremolatxaren sektoreko kolektiboari.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 30a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**